



# Gkef fGdA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

## Memoria 2023



**“Desberdintasunak  
ikusarazten, aukerak sortuz”**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
KIROLA



## Aurkibidea

### 1. SARRERA \_04

### 2. 2023 URTEA- ERRONKA BERRIAK \_08

### 3. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN JUSTIFIKAZIOA ETA DATUAK \_10

### 4. HELBURU OROKORRAK \_12

### 5. LAN- ILDOAK \_14

#### 5.1 ORGANIGRAMA \_15

#### 5.2 GIPUZKOAKO KLUBAK ETA ATXIKITAKO ETA ATXIKI GABEKO ELKARTEAK \_16

### 6. 2023 JARDUERA-PLANA \_17

#### 6.1. KIROL ZUZENDARITZA "GFA-DFG"

##### 6.1.1. Lizentzien tramitazioa \_18

##### 6.1.2. Lehiaketa ofizialen antolakuntza - Ofizialak ez diren txapelketetan elkarlana \_19

##### 6.1.3. Kirol-diziplina. Estatutuak, erregelamenduak eta hauteskunde prozesuak \_23

##### 6.1.4. Eskola kirolerako laguntza teknikoa -UDA Programa \_24

##### 6.1.5. Ohiko federazioekin lankidetzan egindako proiektuak. Laguntza teknikoa \_30

##### 6.1.6. Sentsibilizazio Programa \_34

##### 6.1.7. Teknifikazio Programa. Lehiaketarako kirol- ibilbidea \_38

##### 6.1.8. Kirol Egokituen Klubetako kirol-eskolei asistentzia \_39

##### 6.1.9. Gipuzkoako kirol elkarreentzako asistentzia \_42

##### 6.1.10. Prestakuntza-programa: hitzaldi eta tailerrak \_43

##### 6.1.11. Entrenamendu Funtzionaleko Programa \_47

##### 6.1.12. Uretako Estimulazio Goiztiarreko Programa \_48

##### 6.1.13. Boluntariotza Programa \_48

#### 6.2. "GFAREN" GIZARTE POLITIKARAKO DEPARTAMENTUA \_49

#### 6.3. HEGALAK ZABALIK FUNDAZIOARI LAGUNTZA TEKNIKOA \_49

#### 6.4. REAL SOCIEDAD FUNDAZIOARI LAGUNTZA TEKNIKOA \_50

### 7.- BABESLEAK ETA LAGUNTZAILEAK \_54

# 1.

## SARRERA

## 20. urteurrenarekin hasi dugu urtea.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, hura osatzen duten 30 klubekin batera, bi hamarkada daramatza Gipuzkoako Lurralde Historikoan kirol egokitua bultzatzen.

2023a berritze- eta ilusio-urtea izan da lanean jarraitzeko eta oraindik kirolaz gozatu ezin dutenentzat kirol-aukera gehiago sortzeko.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak (GKEF-FGDA), 2023an, **gure Lurralde Historikoan kirol egokitua sustatzen, hedatzen eta antolatzen jarraituko du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin**. Aurten erronka berriak ditugu, kirola egiteko aukera gehiago sortzen lagunduko dutenak.

Gure zuzendaritza-batzordearekin elkarlanean aurrera jarraitzen dugu, **Blanca Aranguren** lehendakaria buru duela, eta **Igor Otaegi** lehendakariordea lagun dugula. Hamarkada bat baino gehiago daramate biek GIPUZKOAN egokitutako kirolaren alde lan egiten, dedikazio handiarekin eta beti beren laguntza eta ezagutza eskainiz. Oso eskertuta gaude ematen diguten laguntzagatik, honek gure lana egonkortzera eta hobetzera eraman gaitu eta.

Urtea hasteko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera mugarri garrantzitsu bat lortu dugula esan dezakegu, **gure Eskola Kirol Egokituko Sarearen** bidez, desgaitasuna duten edozein eskualdetako eskola- umeei kirol-jarduera egiteko aukera bermatuta duelako.

Helburu horretatik abiatuta, programa indartu nahi dugu antolatuta dagoen udalerri bakoitzean, eta kirol inklusiboarekin aurrera egiten jarraitu nahi dugu, klubien eta gainerako federazioen laguntzarekin.

Halaber, Gipuzkoako lurralde osoan dugun **Informazio eta Orientazio Zerbitzua** indartzen jarraitu nahi dugu, eta horrekin batera, kirol eskolak, gero eta gazte nahiz heldu gehiagok kirol egokitua praktikatzeko aukera izan dezaten inguruan.

Bestalde, GIPUZKOAN talentu handiko kirolari talde bat dago, eta lan handia egin dute beren helburuak lortzeko, eta lanean jarraituko dute **Joko Paraolimpikoetara (Paris 2024)** ahalik eta mailarik onenean iristeko. Kirolgi eta Basque Team dira kirolari horien bekadunak.

**Aurten teknifikazio-proiektu** berri bat bultzatu dugu erakundearen laguntzarik ez baina kirol-errendimenduaren ibilbidea baduten kirolarientzat. Lehenik eta behin, beren herrietako gimnasioetan prestakuntza fisikoa jasotzeko aukera izango dute, eta entrenamendu ikusezin autozainduari, elikadura osasungarriari eta kirol-errendimenduari buruzko estrategia psikologikoei buruzko ezagutzak barneratu ahal izango dituzte. Tailer horiek errendimendua hobetzen lagunduko diete.

Gipuzkoako ligak, topaketak eta hainbat kirol modalitatetako lehiaketak bultzatzen jarraitu dugu.

Gipuzkoan kirol egokitu eta inklusiboaren balioak zabaltzen eta sustatzen jarraitzen dugu, gizartea sentsibilizatzeko eta desberdinen arteko bizikidetza eraldatzeko esku-hartze programen bidez.

Aurten, aurrera egiten ari gara emakumeek egiten duten kirol egokituaren sustapenean, ezgaitasunak dituzten emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategien bidez.

Jarduera fisikoko guneetako (kirol zentroak, hondartzak, parkeak, etab.) irisgarritasun unibertsalari buruzko erabaki politikoetan ere eragina izaten saiatu gara.

Ziur gaude kirola tresna egokia dela pertsona guztiak eta, bereziki, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko. Horregatik, garrantzitsua da esparru guztietan Jarduera Fisikoa eta Kirola sustatzearekin zerikusia duten politikei buruz dugun ikuspegia eta ezagutza ematen jarraitzea, erakundeek kirolaren sarbide unibertsala kudeatzearen ardura har dezaten, bai eta kirol egokitu eta inklusiboak berezko dituen balioak transmititzeko proiektuak bultzatzen lagun dezaten ere.

Kirol partaidetza mota horrek, batzuetan, espazio egokituak eskatzen ditu, eta beste batzuetan, espazio inklusiboak, non desgaitasuna duten pertsonak eta desgaitasunik ez dutenak jarduerak baldintza berdinetan partekatzen dituzten. Baina kirol inklusiboa ez da espontaneoki sortzen, ez beti behintzat, eta behar bezala kudeatzeko begirada aldatu beharra dago eta nahitako apustu bat egin.

2023 honetan **Kirolari buruzko abenduaren 30eko 39/2022 Lege berria** ezagutzen ari gara. Lege honen lehenengo erronka da **jarduera fisikoa eta kirola funtsezko jarduera gisa onartzea, herritar guztien eskubide gisa**.

Lehenengo aldiz, lege honek kontuan hartzen du Kirolak *mota guztietako jarduera fisikoak biltzen dituela, baldin eta, parte-hartze antolatuaren bidez, helburu hauek badituzte: egoera fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea, gizarte-harremanak garatzea edo lehiaketa maila guztietan garatzea*.

Berritasun gisa, gainera, lege honek hainbat alderdi hartzen ditu kontuan: **gizarteratzea, berdintasuna eta aniztasuna, gizarte-kohesioa, trantsizio ekologikoa eta berrikuntza digitalizazioaren bidez**.

Kirola sustatzeko politikek **gazte zaurgarrienen artean jarduera fisikoa sustatzeko** jokatu behar duten funtsezko eginkizuna agerian jarri da. Horretarako, **oinarrizko kirola sustatu, talentudun kirolariei arreta jarri eta gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden beste talde batzuk babestu beharko direlarik kirolerako sarbidea bermatuz**.

Lege hau oso garrantzitsua da federazio guztien bilakaerarako, eta bereziki egokitutako jarduera fisikoa garatzeko, duela urte batzuk ezarri genituen ildo estrategikoetan aurrera egiten jarraitzeko bermea ematen digun heinean.

Azken zortzi urteotan pentsamolde-aldaketa handia eta sentsibilizazio sozial, normalizazio eta apustu politiko handiagoa egon dela uste dugu, desgaitasuna duten pertsona eta entitateek kirolean dituzten beharrei dagokienez. Hala ere, oraindik kolektiboaren benetako beharrei buruzko informazio falta handia dagoela iruditzen zaigu:

- Instalazioetan eta ekipamenduetan oztopoak identifikatu beharra.
- Kirol-langileen prestakuntza hobetzeko beharra.
- Kalitatezko espazio eta zerbitzu egokituak zein inklusiboak sortzeko beharra.

Azken 10 urteotan asko hobetu da, baina [2016.urtean NBEren KONBENTZIOAN, 30.artikulu](#)an eskubidetzat jasotakoa bermatzeko oztopo asko ikusten ditugu oraindik.

Beharrezkoa da kirol-jardueretarako sarbidea ikusaraztea eta normalizatzea.

Gure lurraldeko kirol-politikak aldatzen ari dira, udal- eta lurralde-mailako apustu garrantzitsuekin. Horren erakusgarri da KIROLEAN ANIZTASUNARI ARRETA EMATEKO EREDUA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK sustatua. Ereduekin, lankidetzaren estuan dihardugu elkarlanean, kirolaren arloan benetako gizarteratzea lortzeko.

Bestalde, 2030erako GARAPEN IRAUNKORREKO AGENDAREKIN zuzeneko konpromisoa dute gure helburuek, eta, guretzat, erronka da erronka sozial horretan aurrera egitea.



## 2.

### ERRONKA BERRIAK 2023

Pandemiaren ondorioak larriak izaten ari dira orokorrean osasunarentzat: zailtasunak antzematen dira maila fisikoan, intelektualean, sozialean eta, bereziki, maila emozional eta mentalean, depresio-egoerak eta beldurrak areagotzen ari direlarik. **Azken urteotan, aldaketa negatiboak izan dira pertsona askoren osasunaren eta autonomia pertsonalaren parametroetan, mendekotasun- maila eta zailtasunak areagotu egin direlarik.**

Urritasun egoeran dagoen biztanleriaren zati handi batek, eskolaumeek, gazteek, helduek zein adinekoek, eragin negatiboa izan du. Horregatik, garrantzitsua da pertsona bakoitzak dituen helburuetara bideratutako kirol-praktikak sustatzen jarraitzea: osasuna hobetzea, errehabilitazioa, berregokitzea, aisialdia, kirol-sustapena eta/edo lehiaketa.

Pixkanaka, txapelketak eta ligak berrezartzen ari gara, eskola-kiroleko programak gero eta parte-hartzaile gehiago ditu, kirol egokituko ekitaldiak gero eta ugariagoak izan dira, kirol inklusiboa pixkanaka garatzen ari da, formakuntza gero eta beharrezkoagoa da eta orain arte egin ezin izan diren proiektuak abian jartzen ari gara, horretarako baliabideak ditugun heinean.

—  
**Azken urteotan, aldaketa negatiboak izan dira pertsona askoren osasunaren eta autonomia pertsonalaren parametroetan, mendekotasun- maila eta zailtasunak areagotu egin direlarik.**

### Hauek izan dira 2023ko erronkak:

- GIPUZKOAN KIROL MODALITATE DESBERDINETAKO TOPAKETAK, TXAPELKETAK ETA LIGAK bultzatzen eta antolatzen jarraitzea.
- ESKOLA KIROL EGOKITUAREN SAREA bultzatzen eta GIPUZKOA osora iristen jarraitzea eta bidea errazteko LEKUAn-tokiko arduradunen AHOLKULARITZA eta PRESTAKUNTZA saioak ematea.
- GIPUZKOAKO IKASTETXEETAN SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUA zabaltzen jarraitzea.
- KIROLEAN INKLUSIO prozesuak uzten zaigun heinean erraztea.
- Ohiko federazioekiko LANKIDETZA- ETA KOORDINAZIO-HITZARMENEKIN jarraitzea.
- KIROLA SUSTATZEKO PROIEKTUAK sustatzea GIPUZKOAKO FEDERAZIOEKIN.
- UDALEKUAK antolatzen jarraitzea eskualde guztietan.
- IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO proiektuak bultzatzen jarraitzea, pertsona guztiek JARDUERA FISIKOA egiteko aukera izan dezaten espazio guztietan.
- Kirol egokitua zabaltzen eta sustatzen jarraitzea, gure sare- sozialen bidezko KOMUNIKAZIOA eta KIROL BARRERAK KANPAINA proiektuaren bidez.

3.

### JUSTIFIKAZIOA ETA DATUAK

2019an, **723.576** lagunetatik, **63.090** dira %33ko edo gehiagoko **desgaitasuna maila aitortua duten pertsonak**, hau da, biztanleria osoaren **%8,96**.

Horietatik guztietatik, gutxi dira beren ingurune hurbilenean kirola egiten duten pertsonak, izan Udalaren kirol-eskaintzaren bidez, edo izan GKEF-FGDak Gipuzkoako Lurralde Historikoan eskaintzen dituen berariazko beste zerbitzu batzuen bidez (kluben, elkarteen, kiroldegien eta Gipuzkoako kirol egokituen federazioaren zerbitzuen bidez, etab.).

Oraindik ase gabeko kirol- praktika eskaera ugari dago baliabiderik ez dagoelako, batez ere Donostialetik urrunen dauden eskualdeetan.

Une honetan, "inklusioa modan dagoen hitza da", eta ez da beti ulertzen; gure lana 2023an, kirola egin ahal izateko aukerak sortzen jarraitzea izan da, eskubide gisa, eta, aldi berean, KIROL INKLUSIBOAREN aukerak segurtasunez identifikatzea eta horren bitartez bizikidetza positiboko espazioak sortzea.

GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA garen aldetik, gure helburua da, klub eta foru- nahiz udal- erakundeekin elkarlanean, urritasun-egoeran dauden pertsonen orientazio egokia izatea, beren beharren arabera, eskura duten informazioaren arabera eta ohiko bizilekutik hurbilen dauden kirol- instalazioetara sartzeko aukeren arabera, eta, hala, haien kirol-, familia- eta lan-bizitza uztartzea.

Federazio honek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta inguruko enpresen babesarekin, kirolerako aholkularitza-, orientazio-, antolamendu-, hedapen- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen ditu, Gipuzkoako lurralde osoan, desgaitasuna duten eskualdeetako pertsonen beharrak ardatz hartuta.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, gaur egun atxikitako 30 klubek osatua, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere esku uzten dituen kirol egokitua antolatu, sustatu eta zabaltzeko eginkizunak betetzen ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Gure lana baliabideak koordinatu eta optimizatzen saiatzea izan da, eta zerbitzu eta pertsonen sare bat sortzea profesionalen, praktiketako pertsonen eta berariazko prestakuntza duten eta xede horretarako motibazioa duten boluntarioen artean.

—  
**2019an, 723.576**  
**lagunetatik, 63.090 dira**  
**%33ko edo gehiagoko**  
**desgaitasuna maila**  
**aitortua duten pertsonak,**  
**hau da, biztanleria**  
**osoaren %8,96.**

Zerbitzu horien bidez, kirol-arreta eta -preskripzioa hobetu nahi dira, eta, horrez gain, desgaitasuna edo/eta patologia duten pertsonen osasuna, bizi-kalitatea eta ongizatea hobetu nahi dira, biztanleen beharretara egokitutako jarduera fisikoaren bidez.

Kirola bitarteko egokia da bizikidetza hobetzen, oztopoak gainditzen eta kirolaren esparruan gizarteratzea sustatzen laguntzen duten balio positiboak bultzatzeko.

GKEF-FGDaren 2023 jarduera-programaren bidez, ildo estrategikoak indartu eta sendotu nahi izan dira, eta datozen urteetan proiektu eta ekintza zehatzak ezarri. Horretarako, kirol egokituko klubekin eta zeregin horretan parte hartzen duten klub eta federazio konbentzionalekin lan egingo da.

Asmo handiko erronkan jarraitzen dugu, Gipuzkoako eskualde guztietan desgaitasunen bat duten pertsonen kirola egiteko aukera izateko, egokitua eta/edo inklusiboa. Betiere, eskualde bakoitzeko arazoak, aukerak eta desberdintasunak kontuan hartuta, eta gizarteratzean aurrera egiteko oraindik bide luzea dagoela jakinda.

Gure lehentasunetako bat eskola kirola eta gazte kirola da, pertsona bakoitzarentzat aukerarik onenak baloratzu eta horretarako LEKUAn- tokiko baliabideen egokitasuna baloratzu: udal zerbitzuak, klub konbentzionalen zerbitzuak, Gipuzkoako kirol egokituko klub zerbitzuak, eta GKEFk eskaintzen dituen zerbitzuak ere.

Horregatik, garrantzitsua da erakundeek, sortu diren klub eta egituren lana bultzatzen eta babesten jarraitzea, desgaitasunen bat edo/eta patologiaren bat duten pertsonen zerbitzu egokitueta eta/edo zerbitzu inklusiboetan kirola egiteko aukera izan dezaten, eta beren helburuei ondoen egokitzen zaizkien aukerak libreki aukeratu ahal izan ditzaten.

# 4.

## GKEF-FGDAREN HELBURU OROKORRAK

Helburu hauek ezarri ditugu 2023. urterako: Kirol klubekin batera Gipuzkoako Lurralde Historikoan kirol egokitua antolatu eta garatzea.

- Desgaitasuna duten pertsonen artean kirola sustatzea eta zabaltzea.
- Desgaitasun- egoeran dagoen kirolaria bere ingurune naturalean integratzea eta kirol- taldeetarako ibilbidea erraztea.
- Kirolaren ardura duten pertsonen prestakuntza orokorra eta etengabea sustatzea, haien ezagutza hobetzen lagunduz.
- Kirol- erakundeen esparru inklusiboak bultzatzeko estrategiak garatzea, benetako gizarteratzea bultzatuz.
- Desgaitasuna duen kirolariari eskaintzen zaion jarduera teknifikatzea eta profesionalizatzea.
- Proiektuak lortzeko finantziario moduak bilatzea eta ekonomikoki nahiz sozialki jasangarriak izaten laguntzea.
- Klub eta federazioekin batera era koordinatuan lan egitea, kirol egokitua eta inklusiboa bultzatzeko.
- Kirol egokituko nahiz kirol inklusiboko topaketak sustatzea.



# 5.

## LAN-ILDOAK

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, bere klubekin batera, programa batzuk sortu, kudeatu eta gauzatu ditu pixkanaka, azken 20 urteotan. Programa horien bidez, desgaitasuna duten pertsona askok jarduera fisikoko eta kiroleko programetan parte har dezakete. 2023an, lan-ildoak bultzatzen jarraitu dugu, adin-talde bakoitzeko zerbitzuak areagotzeko; halaber, kirol-sektore horri buruzko ezagutza eta prestakuntza ere sustatuko ditugu, eta kirola egiteko aukerari eta aukera-berdintasunari dagokionez, aukerak eta aukera-berdintasuna hobetzen lagunduko dugu.

01

### GOI-MAILAKO KIROLA

Goi-mailako, talentu eta etorkizuneko kirolariei babesa (Euskadiko Kirol Egokituaren Federazioarekin elkarlana) EKEF-FVDA.

02

### LEHIAKETA-KIROLA

Ligak eta txapelketak.

03

### GAZTEEN KIROLA

Kirol eskolak, teknifikazio programak eta kirol inklusiboa.

04

### ESKOLA KIROL EGOKITUA

Eskola kirol egokituari ekiteko sarea Gipuzkoan, eskola kirol inklusiboa eta sentsibilizazio programak.

05

### ENTRENAMENDU FUNTZIONALEKO PROGRAMAK

Jarduera fisiko egokitua, mugimendu-egokitzapena Hegalak kirol zentroan.

06

### DESGAITASUNA DUTEN PERTSONA GUZTIENTZAKO JARDUERA FISIKOKO PROGRAMAK.

Kirol programa zehatzak, programa inklusiboak, boluntariotza programa, Oztoporik gabeko bainua, etab.

## 5.1- ORGANIGRAMA

### BATZARRA ZUZENDARITZA BATZORDEA

#### IKUSPEGIA

- Ingurunean aniztasun funtzionala duten pertsona guztien bizi-kalitateari eta osotasunari begira.
- Ezagutza eta esperientziak sortzea, Gipuzkoan zerbitzu-eta jarduera-sarea sortu ahal izateko.
- Gizarte inklusioa bultzatzea, kirol egokitu eta inklusiboaren bidez.

PRESIDENTEA: Blanca Aranguren  
PRESIDENTEORDEA: Igor Otaegi  
DIRUZAINA: Estibaliz Sagarmendi  
IDAZKARIA: Amaia Elizondo  
MEDIKU AHOLKULARIA: Jacobo Vázquez

#### BATZORDEKIDEAK:

- Juanma Oliden
- Javier Garcia
- Ander Bedialauneta
- Ana Borrezo
- Silvia Alba

#### KUDEAKETA PRINTZPIOAK

- Gardentasuna.
- Aukera-berdintasuna.
- Berdintasuna.
- Pertsonentzako zerbitzuak.
- Lankidetzak.
- Inguruko baliabideen kudeaketa.
- Hezkidetzak.
- Bateratzea.

#### GERENTZIA PARTEKATUA

FINANTZA ZUZENDARITZA: Amaia Elizondo  
ZUZENDARITZA TEKNIKO: Alicia Figueroa

SANDRA  
PEÑA

RAKEL  
VIDAL

ENERITZ  
MAYORA



MIKEL  
MERINO

ZUZENEKO LAGUNTZAKO TALDE TEKNIKO  
PRAKTIKETAKO IKASLEAK ETA BOLUNTARIOAK

## 5.2 - GIPUZKOAKO KLUBAK

Gure helburua 2023an gure klubetara lana bultzatzen jarraitzea izan da, nahi duten pertsonak haien kirol jarduerara bideratuz.

Horretarako, eskualde ezberdinetan kirol-ekitaldi anitzak antolatu ditugu, KIROL EGOKITUA eta KIROL INKLUSIBOA elkarrekin sustatzeko, KIROL EGOKITUKO ESKOLAK indartuz.

|                                                                                     |                                                                                     |                                                                                     |                                                                                      |                                                                                       |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
|    |    |    |    |    |
| Aita Menni                                                                          | Antigua-Luberri<br>Bosta Guraso Elkartea                                            | Aloña Mendi                                                                         | Askatuak SBT                                                                         | Club Atlético<br>San Sebastián                                                        |
|    |    |    |    |    |
| Atzegi KE                                                                           | Bera Bera RT                                                                        | Berdin-Berdinak                                                                     | Buruntzaldea IKT                                                                     | Dordoka KE                                                                            |
|  |  |  |  |  |
| Gigorraki                                                                           | Fortuna KE                                                                          | Kemen KE                                                                            | Eibar Igerixan KK                                                                    | Gautena                                                                               |
|  |  |  |  |  |
| Getariako Keta FT                                                                   | Haurtzaro AT                                                                        | ONCE                                                                                | Indima-Indisca-Indivis                                                               | Izarraitz IE                                                                          |
|  |  |  |  |  |
| Judo Club Mayumi Irún                                                               | Konporta KE                                                                         | Leka Enea                                                                           | Mindara                                                                              | Oarsoaldea IKT                                                                        |
|  |  |  |  |  |
| Ostadar Saiarre KT                                                                  | Usurbil Pagazpe<br>Pilota KE                                                        | SD Eibar                                                                            | Zarautz KE                                                                           | Zumaia Kirol Elkartea                                                                 |

6.

## JARDUERA PLANA 2023

Azken denboraldietako lizentzien eta aisialdi-txartelen datuetan oinarrituta, gure kirol-politikek arlo hauek garatzen jarraituko dute, diskriminazio positiboko neurrien eta irisgarritasun unibertsalaren ikuspegiaren bidez:

- Haurrentzako psikomotrizitatea aretoan eta ur- ingurunean.
- Desgaitasuna duten biztanleen kirol- jarduerarako sarbidea, bai aisialdirako bai lehiaketetarako.
- Laguntza premia haundiak dituzten pertsonentzako kirol- jarduerak.
- Berdintasun- plana eta emakumeen jarduera fisikoa nahiz kirol- jarduera sustatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako zahartze aktiborako programak.
- Kirolguneetarako sarbidea hobetzeko proiektuak.
- Lan- mahaia bultzatzea.
- Oztopoak identifikatzea eta irisgarritasuna erraztea.

## HAUEK DIRA GAZTERIA ETA KIROL ZUZENDARITZA NAGUSIAK KIROLAREN ARLOAN GIPUZKOAKO KIROL FEDERAZIOEI ESKUORDETUTAKO EGINKIZUNAK:

Gipuzkoako gizartean jarduera fisikoa eta kirola **SUSTATZEA**, bizi-kalitatea eta osasuna zaindu eta hobetzeko oinarritzko faktore gisa, baita nortasun eta kohesio sozialeko elementu gisa ere.

Gipuzkoako kirol sistemaren egituraketa eta sistema hori osatzen duten kirol eragile guztien lankidetzat eta koordinazioa **BULTZATZEA**.

Derrigorrezko eskolatzeko-aldian, kirolean aukera-berdintasuna eta eskola-ume guztien kirol-hastapena **INDARTZEA**, kirola egiteko ohiturak gipuzkoar guztiengana zabal daitezzen.





Euskadiko Euskal Pilota Federazioak antolatuta, eta eskualde ezberdinetako federazioen laguntzarekin, aurtengo denboraldian lehen aldiz Euskal Herri mailako euskal pilota egokituko paleta txapelketa ospatu da. Pilota egokituko bi espezialitateetan egin da: teniseko paleta adimen urri-tasuna duten pertsonekin eta gomazko paleta gurpildun aulkian. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako pilotariek parte hartu dute giro ezinhobe jarritz txapelketari. Txapelketa hau etorkizunean urtero ospatzea da helburua.

|                                                                          | Data       | Lekua                                                                   | Parte-hartzaile kopurua eta emaitzak |
|--------------------------------------------------------------------------|------------|-------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------|
| Kanporaketa Jardunaldia                                                  | 2023.06.10 | Beti Jai, Vitoria-Gasteiz                                               | 21                                   |
| FINALA                                                                   | 2023.06.10 | Beti Jai, Vitoria-Gasteiz                                               |                                      |
| Emaitzak:                                                                |            |                                                                         |                                      |
| Adimen Urritasuna                                                        |            | Gurpil aulkian                                                          |                                      |
| 1. Leire Esnal eta Iratitz Huegun<br>2. Erik Gatón eta Jurdan Arakistain |            | 1. Leire Troitiño eta Beñat Lizaso<br>2. Hilario Olano eta Manu Quesada |                                      |



|                                                                        | Data       | Lekua                                                                         | Parte-hartzaile kopurua eta emaitzak |
|------------------------------------------------------------------------|------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------|
| Kanporaketa Jardunaldia                                                | 2023.12.03 | Uranzu, Irun                                                                  | 30                                   |
| FINALA                                                                 | 2023.12.16 | Labrit, Iruña                                                                 |                                      |
| Emaitzak:                                                              |            |                                                                               |                                      |
| Adimen Urritasuna                                                      |            | Gurpil aulkian                                                                |                                      |
| 1. Xabier Villar eta Iraitz Huegun<br>2. Leire Esnal eta Joseba Altuna |            | 1. Aingeru Semperena eta Edorta de Anta<br>2. Manuel Quesada eta Beñat Lizaso |                                      |



Atzegi, KE-k antolatutako jarduera eta bertan igerilekuko jarduera kudeatzen dugu (izen ematea, mahai teknikoa, emaitzak)



Bi modalitateen artean 40 jokalarik hartu dute parte aldi berean, eta arrakasta handia izan du bai parte-hartzeari bai antolaketari dagokionez.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak konpromisoa hartzen du bere estatutuak eta erregelamenduak egiteko, bere jardueran sortzen diren kirol-gatazkak ezagutu eta konpontzeko, organo judizialen eta arbitralen eskumenari kalterik egin gabe, eta bere erregelamendu-arauak betetzen direla zaintzeko eta horien arabera diziiplina-ahalmena erabiltzeko.

2. Lehen aldiz egin da EAEn **paleta modalitateko I. Peltota TXAPELKETA OFIZIALA INKLUSIOAN**, aulkian eta oinez. Txapelketa hori Hernanin izan zen, **Errebel-deak Fest**-en barruan, urtero irailean Hernanin Dame TVsi3n-en eskutik antolatzen den Kirol Inklusiboa eta Rocka jaialdian. Txapelketa hau Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioaren eta Gipuzkoako Pilota Federazioaren artean antolatu da.

Bi modalitateen artean 30 jokalarik hartu dute parte aldi berean, eta arrakasta handia izan du bai parte-hartzeari bai antolaketari dagokionez.

1. Por pLehen aldiz egin da EAEn 3x3 I. TXAPELKETA OFIZIALA INKLUSIOAN, aulkian eta oinez. Txapelketa hori Hernanin izan zen, **Errebeldeak Fest**-en barruan, urterto irailean Hernanin Dame TVisión-en eskutik antolatzen den Kirok Inklusiboa eta Rocka jaialdian. Txapelketa hau

#### 6.1.4.- GIPUZKOAKO eskola kirol egokitu eta inklusiboari laguntza teknikoak.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, indarrean dagoen araudiaren arabera, desgaitasuna duten herritarrei zuzendutako eskola kirol egokituaren programa antolatzen du.

Desgaitasuna duten eskola-umeek (haurrak eta gazteak) jarduera fisikoa eta kirola egiten hasteko esparrua bultzatzeko beharra du abiapuntu proiektu honek. Jarduera honen bidez, desgaitasuna duten ikasleek eskola-kiroleko programa batean parte har dezakete, helburu hauek lortzeko: motrizitatea, autonomia pertsonala, segurtasuna, autoestimua eta sozializatzeko, harremanak izateko eta gatazkak konpontzeko gaitasuna hobetzea.



**Eskola Kirol Egokituko programa** 2006.urtean jarri zen martxan Gipuzkoako zenbait udalerritan.

**Desgaitasunen bat izateagatik jarduera fisikoa eta kirola era normalizatuan egiteko aukerarik gabe** aurkitzen ziren zenbait gazteren familien beharrei erantzuneko asmoarekin jaio zen egitasmo hau.


Desgaitasun fisiko, psikiko, sentsorial edota organikoren bat zuten gazte hauek, **bai ikastetxe bai klubetako kirol eskaintzatik kanpo** gelditzen ziren **sistematikoki 6- 16 urte bitartean**, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ikastetxe, udal, federazio eta kirol klubetako elkarlanean abian jartzen zuen **ESKOLA KIROLEKO JARDUEREN PROGRAMA**ti kanpo, alegia.

2006.urteaz geroztik, beraz, GKEF eta GFaren arteko elkarlanaren ondorioz, desgaitasuna zuten eskola umei (**EKE**) **Eskola kirol Egokitua, (DEA) Deporte Escolar Adaptado** programan parte hartzeko aukera bermatu zitzairen Gipuzkoan zehar, **urtez- urte egonkortu eta GIPUZKOAKO eskualde guztietan saretzen joan den errealtate bat bihurtu delarik.**

**Eskola Kirol Egokituko** programaren bitartez, beraz, 6-12 urte artean desgaitasuna duten eskola-umeen, eta 12-21 urte artean Gela egonkor eta ZIG geletan dauden ikasleek kirol jarduera espezifikoak bermatzen dira ikasturtero, norberaren behar eta nahiak kontutan hartuz, kirol- ibilbide ezberdinak asetzen saiatzen garelarik:

- Gorputz- hezkuntzako edukiak ardatz hartuta, Kirol anitzeko hastapen programa bat eskaini nahi zaie desgaitasuna duten gazteei, norberaren beharretara gehien egokitzen den kirol- jarduera, taldekatze mota eta egokitutako programazio batekin. Programa hau, gainera, asteburuetako Kirol Jarduera edo Topaketekin osatzen da, hala nola **futbol, igeriketa, eskubaloia, goalballa, boccia, slaloma etab.**

-Klubetako kirol eskoletarako bidean ere laguntzen diegu, kirol- modalitate espezifikoki bat landu nahi duten gazte haien kasuan.




**2022/23 ikasturte honetan**, desgaitasuna duten **130 gazte** ingururi eman zaie arreta **EKE** programan, eta beste 118 ingururi, **UDA** programan (desgaitasuna duten haur eta gazteentzako udaleku espezifikoen programa), beraz, argi dago **oraindik ere EKE programaren beharra ezinbestekoa dela** inor ez dadin desgaitasuna izateagatik jarduera fisiko eta kirolerako aukerarik gabe gelditu **eta kirolean inklusioaren erronka lortzeko** lanean jarraitu beharko dugula ere ezin da zalantzan jarri, ikasle guztiek, salbuespenik gabe, hastapen- eta lehiaketa kirol-jarduerak bere ikastetxeko eta/edo klubetako ikasleekin egin ahal izango dituzten testuinguruak egoki prestatuz. **26 monitore** aritu dira asteroko **EKE** saioak aurrera eramaten.

**2023. urtea** **Eskola Kirol Egokituaren programa GIPUZKOAKO eskualde guztietan** ezartzearekin hasten da. Programaren garapena etengabea izan da azken urteotan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren eskutik eta inguruko egituren laguntzarekin, gaur egun jarduera udalerrri hauetan ematen da:

**Goierri** (Ordizia eta Beasain), **Urola Garaia** (Zumarraga, Legazpia eta Urretxu), **Tolosaldea** (Tolosa eta Villabona), **Donostialdea** (Anoeta, Antiguu, Intxaorondo), **Oarsoaldea** (Errenteria), **Bidasoa** (Irun eta Hondarribia), **Urola Kosta** (Zarautz), **Urola Erdia** (Azpeitia, Azkoitia), **Urola Mendebaldea** (Zumaia), **Buruntzaldea** (Hernani, Andoain), **Debabarrena** (Elgoibar eta Eibar), **Debagoiena** (Arrasate, Oñate, Bergara eta Aretxabaleta).



**DEBAGOIENA eta UROLA KOSTA, ERDIA ETA MENDEBALDEAN**, zerbitzua eskualde bakoitzeko eskola-kirola kudeatzen duten enpresek ematen dute, nahiz eta GKE-Fren Zerbitzu Teknikoak aholkularitza, prestakuntza, kasu zailenetan laguntza eta hasierako orientazioa ematen duen.





**EKE programa** tokian- tokiko eragileek kudeatzeko aholkularitza eta laguntza emateaz gain, desgaitasuna duten ikasleak eskola kiroleko talde arruntetan artatzeko babesa ere eskaintzen dugu, hau da, **EKI prozesuetan aholkularitza eta laguntza** ematen dugu. Horretarako, **GFA** eta **GKEF**ren artean inklusio prozesu hauek aurrera eramateko **BALIABI-DE** ezberdinak eskaintzen dira:

- 'Eskola adineko kirol inklusiboagorako GIDA'.  
2022.urtean kaleratu zen.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero eskaintzen duen **DIRU-LAGUNTZA begirale bat gehiago** kontratatzeko.
- Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioaren **AHOLKULARITZA TEKNIKOA**.
- FORMAKUNTZA**. Prozesu guztia aurrera eraman ondoren, hezkuntza komunitateak desgaitasunaren inguruko formakuntza gehiago beharko balu, zuzenean Federazioarekin harremanetan jarri aukera ezberdinak baloratzeko.

Poliki- poliki asko dira beraien ikastetxeko eskola kirolean EKI prozesuak martxan jarri dituzten hezkuntza komunitateak baina zenbaitetan, prozesu hauek aurrera eramateko monitore espezialistak nahi izaten dituzte eta GKEFko monitoreak bideratzen ditugu. **2023**.urtean, aurreko urtean hasitako **EKI prozesuak** ikastetxe hauetan mantendu ditugu: Irungo **El Pilar**, Zarauzko **Salbatore Mitxelena** eta **Urretxu-Zumarraga** Ikastola. Gainera, **beste 2 EKI** prozesutarako monitoreak bideratu ditugu: Hernaniko **Langile Ikastolan** eta Donostiako **Orixe ikastolan**.



## 2022- 2023 EKE Programaren Jarduera osagarriak:

Gipuzkoako Mendizale Federazioarekin elkarlanean zenbait natur- jarduera antolatu ditugu:

- Orientazio Jolasa Kristina Enea parkean, Donostian**  
  
Data:  
2023.04.21  
**PARTEHARTZAILE KOPURUA:**  
15 gazte, GMFko 4 teknikari eta GKEFko 7 begirale



**ORIENTAZIO JOLASA**  
Juego de orientación

Gipuzkoako Mendizale Federazioarekin elkarlanean hurrengo jarduera proposatzen dizuegu  
En colaboración con la Federación Guipuzcoana de Montaña os proponemos participar en la siguiente actividad.

**Data/fecha**  
2023.04.21

**Horario/ Orduetgia:**  
17:30- 19: 00

**Topalekua**  
Kristina Enea parkean  
Donostian

**Lugar de encuentro**  
Parque Cristina Enea, Donostia

**2023**  
gkefedda

• **Ibilaldia Ibaieta ibilbidean zehar, Irunen**

**Data:**  
2023.04.28  
**Partehartzaile kopurua:**  
9 gazte, GMFko 2 teknikari eta GKEFko 3 begirale



• **Sormena eta Mugimendu tailerra**

Aste batzuetan sormena eta mugimenduarekin jolasean ibili gara Artaziak-eko lagunei esker eskola kirol egokituko taldeetako batean. Musika, mugimendua, gorputz adierazpena...elkarrekin ikasi eta ondo pasa dugu!  
**8 saio egin ditugu, asteartetan, 17:30-18:30 ordutegian, 2023ko urtarrila-martxoa artean.**



• **UDA Programa 2023**

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak 20 urte bete dituen honetan, **UDA 2023 programa** ere aurrera eramatea posible egin du, **urritasun egoeran dauden haur eta gazteei (10-21 urte bitartean)** zuzendua, beti ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria sailetik jasotako diru-laguntzari esker.

Programa hau **7 udalerri** ezberdinetan jarri ahal izan da martxan: Donostian, Irunen, Azpeitian, Beasainen, Zarautzen eta Aretxabaletan. Horietan, guztira, **89 izan dira parte-hartzaileak, 31 monitorea eta 5 pertsona boluntarioak**. Udalerri horiez gain, Erreterian, GKEFren elkarlanean, **Mindara elkarte**a izan da Oarsoaldeako gazteentzako aisialdi-programa espezifiko antolatu duen elkarte arduraduna, **39 parte-hartzaile, 7 monitorea eta 3 boluntariokin**.

Beste behin argi gelditzen zaigu, programa honetan parte hartzen duen gazte kopurua eta asebetetze maila kontutan izanda, programa hau gazte kolektibo konkretu honentzat ezinbestekoa dela oraindik ere, udaran aisialdirako antolatzen diren beste eskaintza guztietatik kanpo gelditzen bait dira eta opor garaiko goizak lagun- artean eta modu aktiboan pasatzeko gogoia eta, kasu askotan, beharra, nabaria delako. Kontutan izan behar dugu, beraien aisialdia era autonomoan antolatu edo lagun-talde naturalak sortzeko zailtasunak direla eta, horrelako eskaintza espezifikorik egingo ez bagenu, gazte asko eta asko etxean bakartuta geldituko lirakeela.

Gazte ororentzat izaten dira aisialdiko jarduerak antolatuak garrantzitsuak. Hala ere, lehen aipatu bezala, desgaitasuna duten gazteentzat, modu honetako jarduerak duten garrantzia areagotu egiten da. **Desgaitasuna duten gazteen familien kasuan, jarduerak mota hauek ezinbestekoak bilakatzen dira, beraien seme-alaben zaintza eta norberaren lan-bizitzarekiko kontziliazio aukerak ahalbidetzen dituelako hein batean.**

Programa honetako helburuek jarraipena eta sakontasuna eman nahi diote, ikasturte osoan zehar martxan dagoen Eskola Kirol Egokituko programaren helburu zein edukiei (motrizitatea hobetu, gaitasun fisikoak landu, harreman sozialak eta norbere jarrerak landu, ikaskuntza prozesuak hobetu, jolastu, ondo pasatu etab.). Ingurune honetan, gazte hauen opor-garaia dela kontuan hartuz, aisialdi espazio

atsegin, seguru eta osasuntsu bat eskaini nahi zaie. **Gure asmo nagusia beraz, parte-hartzaileek lagun taldean eta aire librean ondo pasatzea da, eta bide batez, jarduerak fisiko, kultural zein norbere ezaugarrien araberrako kirol esperientziak probatu eta bizitzea.**

Bestalde, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak gaur egun urritasuna duten gazteentzako aisialdi eskaintzan dagoen hutsunea bete nahi du eta gazte hauek udako goizak modu ezberdin eta aktibo batean igarotzeko aukerak eskaini nahi ditu.

2023ko uda honetan, **7 udalerri**tan aktibatuta dugu **UDA programa**. Udalerri bakoitzean erabiltzaileen interesen araberrako txandak eskaini dira eta jarduerak **astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30 ordutegian** egin da.

-  
**UDA 2023- ekainak 26/uztailak 21**

|                        | Donostia | Irun | Beasain | Azpeitia | Zarautz | Erreteria | Aretxabaleta | GUZTIRA |
|------------------------|----------|------|---------|----------|---------|-----------|--------------|---------|
| Partehartzaile kopurua | 39       | 13   | 7       | 5        | 7       | 39        | 18           | 128     |
| Monitorea kopurua      | 12       | 5    | 2       | 2        | 4       | 7         | 7            | 39      |
| Boluntario kopurua     | 2        | 1    | 2       | 0        | 0       | 3         | 0            | 8       |



**6.1.5.- Ohiko Federazioekin elkarlanean egindako proiektuak. Laguntza teknikoa.**

**• FUTBOL EGOKITU- INKLUSIBOA**

2022-23 denboraldian futbol inklusiboko 12 bat topaketa antolatu ditugu Gipuzkoako kirol egokituen federazioa eta Gipuzkoako futbol federazioaren artean.

Topaketa hauetan desgaitasuna duten eta desgaitasunik gabeko gazteen partehartzea oso altua da.

GKEFK kudeatzen duen eskola-kirol egokituko saretik desgaitasuna duten gazte as gerturatzen dira topaketetara, baita, tokian tokiko futbol- elkarreetako kide diren gazte asko ere bai.

**Jardunaldiak 11 elkarterekin lankidetzan egin dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko eskualde guztietan.**

- Parte-hartzaile kopurua: 1.300 kirolari eta teknikari baino gehiago
- Desgaitasuna duten 120 gazte baino gehiagok hartu dute parte urtean zehar.



Topaketek helburu hauek dituzte:

- Klubeko pertsona guztiak sentsibilizatzeko gunea eskaintzea: jokalaria, teknikaria eta zuzendariak.
- Jardueraren aurretik, jokalariei eta teknikariei zuzendutako hitzaldiak eskaintzea.
- Ariketa inklusiboa egitea, hau da, entrenamendu bateratua egitea, hainbat eremutan eta hainbat ariketa eta mailatan antolatuta, eta aldi bereko partidetan amaitzea.
- Bizikidetzaren balioak eta osasuna sustatzeko duen garrantziari buruzko hitzaldia eskaintzea familiei.

**Bestalde, gorpil-aulkiko futbol eskola sortzen laguntzen ari gara:**

Euskadiko gorpil- aulkiko futboleko lehen erakustaldia egin dugu, laguntza behar handia duten gazteentzat futbol eskola ateratzeko pausoak emateko asmoz.



**• ESKUBALOI TOPAKETA INKLUSIBOAK**

2023an ESKUBALOI inklusiboko **3 topaketa** antolatu ditugu **ZARAUTZEN** eta **1 ERRENTERIAN**, eta eskola-kirol egokituko sare osoan desgaitasuna duten gazte askok parte hartu dute.

Batez beste, **18 jokalar**i bertaratu izan dira topaketetara, **Eskubaloi saileko 16 pertsona** aritu dira saioetan parte hartzen eta **gutxienez 8 teknikari** izan dira saioetan.



• **EUSKAL PELOTA EGOKITUKO EMAKUMEEN  
TOPAKETA INKLUSIBOAK**

Aurten, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioarekin batera, topaketa hauek antolatu ditugu. Topaketa hauen helburu nagusia gazteen artean kirol modalitate hau sustatzea da.

Aipatu beharra dago, emakumeen lehen paleta topaketa antolatu dela, erabateko inklusioan eta parte-hartze handiarekin.

| Data       | Tokia                            | Partehartzaile kopurua |
|------------|----------------------------------|------------------------|
| 2023.02.04 | Ikastola Pilotalekua<br>ELGOIBAR | 18                     |
| 11.03.2023 | Arrate Pilotalekua<br>ANDOAIN    | 27                     |



• **SASKIBALOI INKLUSIBOA 3X3, FUTBOL  
INKLUSIBOA ETA PALA INKLUSIBOA.  
ERREBELDEAK FEST- 2023**

**HERNANIKO ERREBELDEAK FEST** jaialdiaren barruan, hiru kirol-ekitaldi antolatzeko aukera izan dugu, hainbat federazio eta elkarterekin elkarlanean:

Hauek izan dira lehiaketak:

-**Saskibaloia: 3x3.** Hainbat klubetako 120 pertsonak hartu dute parte, eta lurraldeko nahiz Euskadiko saskibaloï-federazioekin lankidetzan aritu gara.

- **Futbola, inklusioan:** Realeko eta Athleticen beteranoak, GENUIN LIGAKO jokalariekin nahastuta jokatu dute ( bai Realeko bai Athletic-eko jokalariekin); eta 80 pertsona inguruk hartu dute parte.

-**Futbola gurgil-aulkian:** Futboleko erakustaldi bat egin da aulkian, Euskadiko lehena, eta jokalaria horientzako garrantzitsua izan da.

- **Pilota-paleta:** inklusioan, nesken eta mutilen kategoriak bereiztu dira, aulkiaekin eta oinez. Desgaitasuna duten eta ez duten pertsonen arteko partidak izan dira. Lehen aldiz. Eta Hernaniko klubeko eta Gipuzkoako jokalarien parte-hartze handia izan da.

Ondoren, **zuzeneko rockaz** gozatzeko aukera izan dugu: **Motxila 21, Bona Dea eta Bosgarren** edukiontzia.





## URBIL MERKATAL GUNEA

**Data:** 2023.10.21  
**Nork eskatuta:** URBIL  
**Partehartzaile kopurua:** 30 pertsona

GKEFK sentsibilizazio-jardunaldi bat egin du San Martzial Futbol Klubarekin eta Begisare Elkartarekin lankidetzan. Bertaratutakoek futbola, jolas kooperatiboak eta Boccia praktikatzeko aukera izan dute inklusioan. Ariketa fisikoa egitean ikusmen gutxiko pertsona batek zer sentitzen duen bizitzeko tailerra ere egin da.



## ARGAZKI ERAKUSKETAREKIN BATERA EGINDAKO SENTSIBILIZAZIO SAIOAK *KIROLAZ HARATAGO argazki erakusketa*

Erakusketaren helburua da Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak egiten duen lanaren berri ematea eta, horren bidez, gipuzkoarrak sentsibilizatzea.

Kirol Barrerak kanpainaren barruan, gizartea sentsibilizatzen jarraitzeko beste pausu bat da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioarekin elkarlanean, kirola guztiontzako funtsezko eskubidea dela gogorarazi nahi dugu.

**2023an argazki erakusketa hau hiru gunetan jarri dugu: Orioko Kultur Etxean, Hegalak Kirol Zentroan eta Urbil Merkatal Zentroan.**

### Orioko Kultur Etxea

- Data:** 2023.01.25-2023.2.09  
**Orion, gainera, erakusketaren osagarri bezala, 3 jarduera burutu ditugu herritarrekin:**
- Orioko ikastolako ikasleak** bertaratu ziren eta kirol egokituaz aritu ginen beraiekin.
  - Ibon Oregi** triatleta ohiaren hitzaldia antolatu genuen, hanka-anputazioa dela eta kirol egokituari hasi eta bere esperientzia ezagutzera emateko.
  - Zuhaitz Elkarteko emakumeekin** tailer bat egin genuen. Elkarrekin udalerriko irisgarritasunari buruz aritu ginen eta bizikidetzarako, tolerantziarako eta enpatiarako balioez hitz egin da.



### Hegalak Kirol Zentroan argazki erakusketa

**Data:** 2023.eko Uztaila



### URBIL Merkatal Gunea

Erakusketarekin batera, 2023.10.21ean, Gurpil aulkiko Esgrima erakustaldi bat antolatu zen.



### BIZIPOZAREKIN ELKARLANAA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (GKEF) Bizipoza Elkarteko kide da. Bizipoza irabazi asmorik gabeko gizartegintza egitasmoa da, 38 elkarte biltzen dituena: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei materiala eskaintzea du xede. Aldi berean, elkarte, haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak gizarteratzea.



2023an, hainbat ekimenetan parte hartu dugu Bizipoza Elkartarekin:

- Ekainaren 18an, Bizipozaren Jaian, Villabonan. Elkarteen txokoan, GKEFetik informazio mahaia jarri genuen, kirol egokituaren inguruko aukeren berri emanez.
- Urriaren 4ean, Gasteizko Eusko Legebiltzarrean, Haur eta Nerabeen lege proiektuan gure ekarpenak egin genituen Bizipozatik. Egindako agerraldian haur eta nerabe guztiak erdigunean jarriko zituen legea behar zela nabarmendu genuen.



**6.1.7.- Teknikazio Programa. Lehiaketarako kirol- ibilbidea.**

Federazioak ondoko teknikazio programa hauek antolatu eta haien jarraipena egingen du:

- Orientazioa eta prestakuntza, lehiaketa-ibilbidea jarraitzeko aukera duen kirolariarentzat, Kirol Egokituen Euskal Federazioarekin eta Hegalak Zabalik Fundazioa eta Kirolgirekin lankidetzan.
- Etorkizuneko kirolarien eta talentuen dokumentazioa eta txostenak kudeatzea.
- Kirol-maila gorenerako proiektzioa duten kirolariak detektatzea eta haien segimendua egitea.
- Ohiko federazioetan dauden kirolariak koordinatu eta haien jarraipena egitea, laguntza eta aholkularitza eskainiz.

**• TEKNIFIKAZIO PROGRAMA: LEHIAKETARAKO KIROL- IBILBIDEA.**

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak (FGDA), Hegalak Zabalik Fundazioarekin lankidetzan eta Teknikazio programaren barruan, "LEHIAKETARAKO KIROL IBILBIDEA" izeneko proiektua jarri du abian. Estatuko lehiaketetan parte hartu eta/edo 2021-2022 denboraldian kirol-lehiaketetan emaitza nabarmenak lortu zituzten kirol egokituko kirolarientzako eskaintza da.

Azken urteotan, kirol-errendimenduan proiektio argia duten GOI MAILAKO kirolariak bereizi egin behar izan dira, erakundeetatik laguntzak dituztenak, KIROLGI, BAT BASQUE COUNTRY EUSKO JAURLARITZARENA EDO ESPAINIAKO BATZORDE PARAOLINPIKOAREN laguntzak, eta laguntza horiek jasotzen ez dituztenak.

Horregatik, proiektu honen helburua laguntza eskaintzea izan da, kirol-ibilbidean entrenamendu osagarri gisa. Horretarako, Donostiako Hegalak kirol-zentroak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko aukera eman zaie.


Proiektu honi dagokionez, **helburu** hauek ezarri genituen:

- Kirolariei ematen zaien laguntza teknikoa hobetzea.
- Kirol-modalitate bakoitzaren POST-DENBORALDIA egitea, Hegalak Zabalik Fundazioaren baliabideak kontuan hartuta.

Federazioak identifikazioa eta jarraipena egin die lehiaketa-irizpide batzuk betetzen dituzten zenbait kirolariri.

Guztira 38 kirolariri egin zaie jarraipena.

Kirolari horiek kirol hauek egiten dituzte: Igeriketa, 10; Atletismoa, 4; Boccia,1; Slalom,3; Eskia, Snow,1; Euskal pilota, 15; Futbola, 4.



**6.1.8.- KIROL EGOKITUKO KLUBEN KIROL ESKOLEI LAGUNTZA**

Gipuzkoako klubetako kirol eskolei laguntzea:

2023an zehar, kirol egokituarekin lotutako eskola eta proiektu berri askori lagundu zaie. GKEFren giza baliabideekin lagundu zaie hainbat eskola eta jarduerari:

**Gurpil- aulkiko saskibaloia (Bera Bera):**

2023an zehar eskola lagundu dugu hainbat jokalaria bidaliz eta hauei laguntza eskainiz; bestalde, hainbat bilera egin ditugu elkarteko arduradunekin eta praktiketako pertsonak bideratu ditugu, ekarpenak egin dituztelarik.



### Euskal pilotako eskola eta klubak (Zarautz, Zumaia, Mindara klubak).

Laguntza teknikoa eman diegu pilota-eskolei, bai jokalariei arreta ematen laguntzeko, bai antolaketa-bileretan, bai materiala behar izan dutenetan, bai entrenamenduetan eta txapelketetan. Aldi berean, kirol-lizentziak tramitzeko garaian laguntza eta orientazioa eskaini zaie, baita euskal federazioari atxikitzean eta beste kudeaketa batzuetan ere.

### Laguntza behar handiak dituzten kirolariei apoioa (Konporta kluba).

Bi igerilariri eman zaie laguntza aldagelan, Konporta klubean igeriketa praktikatu ahal izateko. Gainera, 2023an praktiketako ikasleak bideratu ditugu klubeko saietaan apoioa emateko.

### Laguntza eskrima eskolari (Fortuna kluba).

Laguntza teknikoa eman da eskolaren antolaketan, bilereetan, materiala eta garraioan. Praktiketako ikasleak ere eskolan eta txapelketan laguntzera bideratu ditugu.

### Futbol Egokituaren eskolari apoioa (San Martzial kluba).

Bilera ugari egin dira, jokalariek bidali dira, prestakuntza eman da, eta eskola antolatzen lagundu da.

### Egokitutako eskubaloien eskolari apoioa (Txingudi kluba).

Txingudiko eskolari laguntza eman zaio, praktiketako bi ikasle arlo honetan prestatu ditugularik eta eskolari buruzko proiektuetan lagundu da.

### Slalom eta boccia eskolei apoioa (Ostadar eta Dordoka klubak).

**Ostadar** klubeko Slalom eta Bocciako eskoletara kirolari berriak eta praktiketako ikasleak bideratu ditugu.

**Dordoka** klubean, Klubaren kudeaketa berreskuratzen saiatzen ari dira boccia eta slalom modalitateetan eskolak martxan jartzeko, eta horretan laguntzeko bilerak egiten ari gara. Proiektu berriak gainera Amagoia Arrietaren eta Ekaitz Txintxurreta, bere entrenatzailearen babesa dauka.

Gurpil- aulkiko Slalom-erako Epaile Autonomikoaren Ikastaroa ere egin dugu, ez baitago epailerik Gipuzkoan denborak hartzeko, eta Gipuzkoako klubetako kirolariak beste probintzia batzuetara joan behar izaten dira edo lehiaketetan parte hartzeko aukerarik gabe geratzen dira.

### Atletismo eskolari apoioa (Ostadar kluba).

Eskolara kirolari berriak eta praktiketako ikasleak bideratu ditugu.

-Hegalak Fundazioko igeriketa eskolarako elkarriketak eta orientazioak

Igeriketa egokituaren eskola bat sortzeko proiektu berria lantzen ari gara. Proiektu hau aktibatzeke beharra dagoela uste dugu, desgaitasuna duten haur, gazte eta heldu kopuru handia dela eta. Proiektu hau Hegalak Zabalik fundazioak zuzentzen du, beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak bilatuz.

### Triathloi eskolari laguntza (Antxintxika kluba).

Triathloi eskolari lagundu zaio kirolariak bidaliz eta proiektua babestuz.

### Arraun eskolari laguntza (Hernaniko kluba).

Hernaniko Arraun Eskola laguntzen ari gara, kirolari berrien inguruko entrenamenduetan lagunduz, bai asistentzia teknikoan, bai orientazioan eta bai azpiegiturei dagokienez.

### Saskibaloien egokituaren eskolari apoioa (Askatuak).

Askatuak klubaren **1. Saskiamets eguna** ekitaldia antolatzen lagundu dugu. Bertan, aniztasun funtzionala duen saskibaloien taldea omendu nahi izan da, eta, horretarako, Gasteizko EKHTEA saskibaloien taldea gonbidatu da, funtzio-aniztasuna duten jokalariz osatua. Askatuak klubeko ezgaitasunik gabeko jokalariek benjaminek parte hartu dute. Guztira 129 pertsona bertaratu dira.

### GAITUZ SPORT SARIAK- KURSAAL.

2023ko edizioan, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPE) saria jaso zuen EMAKUMEA ETA PILOTA ekimena aurrera eramateagatik. Aldi berean, GEPEk Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin elkarbanatu zuen sari hau azken urteetan egindako elkarlanagatik.





#### • Praktiketako ikasleen prestakuntza

2023an 13 ikaslek egin dituzte praktikak Martxoan eta Maiatza artean, eta beste 4k irailetik Abendura.

Ikasle horiek ondoko zereginetan egituratutako praktikak egin dituzte:

- Talde-lana.
- Banakako lanak, classroomaren bidez.
- Hainbat espazio, ekitaldi eta jardueratara joatea, desgaitasun desberdinak dituzten pertsonen errealitatea ezagutzeko:

**Begisare** elkarteko kideekin tailerra, retinosi pigmentarioaren ingurukoa (2023ko martxoa)

**Osteogenesi ez-perfektuari** buruzko tailerra, Juncal Cepedak eskainia (2023ko martxoa)



**Desgaitasun fisikoari** buruzko tailerra, Miren Martiarenak Hegalak kirol zentroan eskainia (2023ko martxoa)



**Estimulazio Goiztiarreko Programan** parte hartzen aritu dira **Naiara Navarrokekin** apoio lanak egiten (urtarrila- martxoa 2023)



#### • FORMAKUNTZA: Zarauzko Hondartzako sorosle taldeari eskainitako PRESTAKUNTZA SAIOA.

2 orduko saioa, desgaitasunen bat duten pertsonen lagunduriko bainuan zerbitzua ematen irakasteko.

Data: 2023.07.07



#### • FORMAKUNTZA: Mendizaletasun inklusiboa

Mendi-ibilaldietan desgaitasuna duten pertsonak gidatzeko oinarritzko tekniken inguruko sentsibilizazio eta sarrera ikastaroa.

Data: 2023.10.28

Ordutegia: 9:30- 14:00

Partehartzaile kopurua: 20

Tokia: Kirol Etxea, Anoeta pasealekua 5, Donostia

**Mendizaletasun inklusiboa**  
**Montaña e inclusión**

Donostia - San Sebastián  
Urriak 28 Octubre / 9:30 - 14 h  
Kirol Etxea - Anoeta pasealekua, 5.  
Izena ematea - Inscripciones  
943 46 25 14 / multikirola@gkef-fgda.org

**IBILKI**  
**KEMEN**

**20**  
**URTE**  
**gkef fgda**  
Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

#### • FORMAKUNTZA: IKUSMEN URRITASUNA duten pertsonentzako ariketa fisikoa egiteko tailerra

Ko-sorkuntza tailer bat egin dugu ikusmen urritasuna duten pertsonentzat.

**BEGISARE, GKEF eta HEGALAK ZABALIK FUNDAZIOA** elkarteen artean hitzarmen bat sinatu da. Hitzarmen horretan, 2023an, Alicia Figuerola kirol-hezitzaileak diseinatu eta zuzendutako bi hilabeteko programa bat aurrera eraman da. Egindakoa gida batetan jasoko da orain, ikusmen urritasuna duten pertsonentzat edo itsuentzat osasun-programa egituratua nola diseinatzeko den jakiteko.

10 saio egin dira eta 14 pertsonak, teknikari batek eta praktiketako 3 ikaslek hartu dute parte.





• **FORMAKUNTZA: Eskubaloi Egokitu-Inklusiboa EREINTZA klubarekin (RENTERIA)**

Errenterian, eskubaloi inklusiboko prestakuntza saio bat egin da klubeko entrenatzaile eta jokalariekin alde batetik, eta Eskubaloi Topaketa bat bestetik, desgaitasuna duten eta ez duten 80 parte-hartzaile baino gehiagorekin.



• **FORMAKUNTZA: Ariketa Fisikoaren eta Onkologiaren I. Biltzar Nazionala.**

GKEF eta Hegalak Zabalik Fundazioa Castellonen izan dira 2023ko azaroan egindako Ariketa fisikoaren eta Onkologiaren lehen kongresuan. Bi komunikazio eta ariketa fisikoari eta bularreko minbiziari buruzko posterra aurkeztu dira. Jon eta Marenek ere, Gipuzkoako onkologikotik, bere ikerketa aurkeztu dute.

**6.1.11.- Entrenamendu Funtzionaleko Programa**

Programa honek desgaitasuna duten pertsona helduentzat egokitutako jarduera fisikorako plan bat planteatzen du, osasuna, integrazioa, normalizazioa eta gizarteratzea helburu dituena.

Desgaitasuna duten pertsonen talde espezifikoekin lan egiten hasiko gara, beren gaitasun fisiko eta mentalak mantendu eta hobetzen, autoestimua areagotzen eta sozializazio-prozesua sendotzen lagunduko dien jarduera bat eginez.

Era progresiboan eta ahal den neurrian, polikiroldegi eta/edo tokiko kirol-egituretan bakarka sartzeko prozesuak abian jartzen saiatuko gara, talde espezifikoetatik talde normalizatuera pasatuz.

**HELBURU OROKORRAK:**

- Egoera fisiko orokorra hobetzea.
- Autopertzepzioa, auto-kontzeptua eta segurtasuna hobetzea.
- Osasuna, bizi-kalitatea eta ongizate orokorra hobetzea, gorputza, burua eta kontzientzia integratuz.
- Ariketa fisiko osasungarriari hobeto atxikitzen laguntzea.
- Mugitzeko eta gizarte-harremanetarako gaitasuna hobetzea eta dibertimendua eta poza sustatzea.
- Emozioak kontrolatzeko gaitasun handiagoa garatzea.



**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

- Ariketa fisikoak: gaitasun fisikoak eta motorrak hobetzea:
  - . Gaitasun aerobikoa eta indarra ezagutu eta hobetzea, jarduera dinamiko eta egokituen bidez.
  - . Korea edo faxa abdominala indartzea.
  - . Oinarrizko abilezia motoreak ezagutu eta garatzea.
- Sozialak: jarduera fisikoen bidez kirol-esperientzia ludikoak bizitzea eta partekatzea.
- Osasuna:
  - . Eguneroko jarduera eta kiroletan gorputz-jarrera egoia zuzentzea eta bereganatzea.
  - . Bizi-kalitatea hobetzeko ohitura osasungarriak aktibatu eta sustatzea.

**2023** honetan, Entrenamendu Funtzionaleko **bi talde** izan ditugu aktibo, eta talde bakoitzak **entrenamendu funtzionaleko saio bat egin du astero**:

**1. Urnietako EF taldea:** guztira desgaitasuna duten **14 pertsona** heldu egon dira taldean, 12 ginonezko eta 2 emakumezko. Gautena elkarrekin Urnietan duen etxebizitzan bizi dira denak astean zehar, eta **asteazkenean 18:00etatik 19:00etara** Urnietako Egape ikastetxeko gimnasia joan izan dira, **GKEFko 2 teknikarik** zuzendutako ariketa fisikoko saioak egitera, etxebizitzako hezitzaileen laguntzaz.

**2. Donostiako EF taldea:** kasu honetan, taldea desgaitasun bat duten **15 helduk** osatzen dute, 11 gizonezko eta 4 emakumezko, Gautenak Donostian dituen etxebizitza desberdinetakoak. **Astearteetan** izaten dira saioak, **18:30etik 19:30era**, Magisteritza Unibertsitateko gimnasioan, GKEFko 2 teknikarik gidatzen dituztelarik saioak.

### 6.1.12.- Estimulazio Goiztiarreko Programa Uretan

Donostian **TipiSaltaren** bidez eskaintzen den **Uretako estimulazio programa** bat da, **GKEF** (Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa) eta **Hegalak Zabalik Fundazioarekin** batera.

Haurren trebetasun guztiak indartzeko igerilekua bezain ingurune aberasgarrian eskaintzen den jarduera hau, **garapenean alterazioak dituzten haurrak** artatzeko diseinatu-ta dago.

**0 eta 8 urte bitarteko** haurrentzako jarduera da, uretara egokitzen laguntzen duena eta uretan garapena segurtasunez egiteko oinarriak ezartzen dituena. Haurren **guraso edo tutoreekin** lan egiten da eta **beti talde txikietan**.

**2023an, bi talde** egon dira aktibo:

1. Taldea Hegalak Kirol Zentroan, ostiraletan, 12:00etatik 14:00etara
2. Taldea Intxaurren kiroldegian, ostegunetan, 16:00etatik 17:00etara

### 6.1.13.- Boluntariotza Programa

Aurten 21 boluntario izan ditugu GKEFren hainbat programatan:

- 6 boluntario UDA programan
- 15 boluntario hainbat jerduerretasn (mendia, sentsilizazioa, txapelketak, topaketak...)



## 6.2.- GIZARTE POLITIKARAKO DEPARTAMENTUAK DIRUZ LAGUNDUA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Pertsona eta familientzako laguntza teknikoa:

- Kirolaren bidez gizartearen sentsibilizatzeko programak
- GKEFren boluntariotza-programa
- GIPUZKOAKO hondartzetako irisgarritasunaren hasierako diagnostikoa
- Udal-mahaiak dinamizatzea

### 6.3.- HEGALAK ZABALIK FUNDAZIOARI LAGUNTZA TEKNIKOA

- Laguntza eta aholkularitza administratiboa eta kudeaketa
- Laguntza teknikoa
- Praktika-programa
- Nahitaez bete beharreko berariazko programak kudeatu eta kontrolatzea.
- Nergroup-en teknifikazio-programa
- Hobesegi programa
- Uretan estimulazio goiztiarreko programa
- Osasun-azterketen koordinazioa
  - Kanonaren aurkako espazioen kudeaketa
- Teknifikazio-programa
- Kirolaren bidez sentsibilizatzeko programa (IKUSNAHI)

- **HEGALAK ZABALIK FUNDAZIOAREN "IKUSNAHI SENSU" SENTSIBILIZAZIO SAIOAK HEZIKETA FISIKOKO KLASEETAN**

- Oztoporik gabeko bainu-programak (DENUR)
- Emakumeak ahalduzko programak (SEGIEZAN)

| Eskualdea    | Herria   | Instalakuntza      | Data       | Parte-hartzaile kopurua |
|--------------|----------|--------------------|------------|-------------------------|
| DONOSTIALDEA | Donostia | Colegio Larramendi | 2023.06.06 | 25 ikasle inguru        |
| DONOSTIALDEA | Zubieta  | "Eskola Txikiak"   | 2023.10.02 | 32 ikasle               |



**6.4.- REAL SOCIEDAD FUNDAZIOARI LAGUNTZA  
TEKNIKOAK:**

• **REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAREKIN  
"DESBERDINTASUNA BIZI" SENTSIBILIZAZIO  
JARDUNALDIAK**

Zubietan egon gara hitzaldiak ematen eta sentsibiliza-  
zio programa egiten.

Lau astez, saio teoriko-praktiko batzuetatik abiatuta,  
sentsibilizazio-lana egin dugu.

60 jokalariko taldeekin lan egin dugu saio bakoitzean

**Datak:** 2023.05.12, 18 eta 25



• **REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAREN EGUNA**

**Data:** 2023.06.18

**Lekua:** Reale Arena futbol estadioa eta kanpoaldeko eremua

**Parte-hartzaileak:** Pertsona guztiei irekia



7.

**BABESLEAK ETA  
LAGUNTZAILEAK**

Eskerrik asko gure lana posible egiten duten  
babesle eta laguntzaile guztiei.

**HITZARMENAK ETA LANKIDETZAK UDALEKIN**



**LANKIDETZAK**



#### PROIEKTUEN BABESLEAK



#### BABESLE OROKORRAK



#### BABESLE NAGUSIAK



Kirol egokituari  
buruzko albisteak  
jarraitu nahi dituzu?

¿Quieres seguir  
noticias sobre  
deporte adaptado?

**AURKITUKO GAITUZUE:**  
**NOS ENCONTRARÉIS:**

**WWW.GKEF-FGDA.ORG**



gipkirolegokitu



gkef-fgda.org



GipKirolEgokitu



GKEF-FGDA

**ANIMA ZAITEZTE GURE  
SARE SOZIALAK  
JARRAITZERA!**



**gkef fgda**

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado



---

**Gkef fGdA**

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

**Kirol Etxea**

Anoeta Pasealekua, 5  
20014 - Donostia

Tfno: 943 462 514

[info@gkef-fgda.org](mailto:info@gkef-fgda.org)

[www.gkef-fgda.org](http://www.gkef-fgda.org)